

DIRU-ITURRIAK

Gure enpresak besteek bezala funtzionatzen du, eta ondorioz dirua lortzeko erak ez du bereizgarritasunik. Diru sarrerak fundak saltzearen bidez lortuko ditugu; eta erabilitako materialaren prezioa kenduz (gastuak, kortxoarena, "air-bag"arena, pinturarena, etab.) , etekinak lortuko ditugu.

Prezio finko bat izango dugu, 30€-koa izango da pertsonalizatorik gabe eta pertsonalizatuta ordea, 40€-koa. Behar izanez gero aldatuko dugu bakarrik, hau da, salmenta okertzen edo hobetzen bada bakarrik. Hala ere, merkatura ateratzen dugun lehen urtean prezioa zertxobait baxuagoa izango da; honek, produktua ezagutaraztea eta errazago saltzea ahalbidetuko baitigu.



Bolumenaren araberako prezioa jarriko dugu, nahiz eta lehenengo urtean merkeago jarriko dugun, izan ere, enpresa berri bat izateak zailtasunak emango dizkigu merkatura sartzeko orduan. Geroz eta unitate gehiago salduz, prezioa baxuagoa izango da, baina 3€koa izango da prezioaren jaitsieraren muga.

Proiektua aurrera ateratzeko, bakoitzak 1.000€ jarri beharko ditu. Baina diru kantitate hori nahikoa izango ez denez, 1.600€-ko mailegu bat eskatuko dugu. BBVA bankua izango da mailegua emateaz arduratuko dena, aztertutako bankuetatik baldintza hoberenak eskaini eta konpetenteenak izan direlako. Horren arabera, gure irabazi iturriak hilabetero, 1050€ ingurukoak izango dira: hilean 70 funda salduko direla estimatu dugu gutxigorabehera. Urteko bataz bestekoa 12600€koa izango dela kalkulatu dugu.

Gure bezeroek askatasun guztia dute erosten duten produktua erabiltzeko eta manipulatzeko, baina manipulatzeko orduan, barruko sistema hondatzen badute, ez gara horretaz kargu egingo, bezeroa izan baita errudun. Horregatik, aktiboen salmentan kontzentratuko gara, hots, produktu baten jabetza - eskubideak saltzen.

Euskal Herriko Enpresa

